

GARBE-MIKELE AUZO BATZARRA

Igorren, 2011ko urri lehenengoaren 12an

Alkateak eskerrak emon ostean hasi da batzarra. Hiru alderdien artean egindako ekarpenak eta aportazioak eukiko ditu Aurrekontu parte hartzaileen batzarrak.

Logoaren aurkezpena egin da, herritarren ahotsa entzun eta danon neurrira egokitzen dan aurrekontuek aurrera ateratzeko.

Sarrerak nondik datozen azaldu da, modu eskematiko eta labur baten.

Gastuen sorrera ze bidetatik hartzen dan adierazo dau Beinat Anzola alkateak.

Zer hobetu herritarrengandik jasotako gabezien sailean azaldu dira, besteak beste, autoeskola aurreko aparkalekuan arazoak izatea, garbe 4an osteko urbanizazioa eta Zuhutzutik datorren errekea garbitzeko aukerak aztertu dira batzar honen aurretik.

Mikelen jaiak aitatzen dira, pertsona bakarrak pisu osoa hartu ez dagian, San Migel ermitara argia modu egokian jartzea eta auzo barruko bidegurutzeen segurtasuna hobetzea ikusten dira egingarriak udal gobernuaren aldetik.

Lehenengo errepide nazionalera urtetako dagozan arazoak azaldu dabez hainbat herritarrek, bisibilidade faltak arriskua nabarmen igotzen dabela.

Lehentasunen kontua aitatu dau herritar batek, izotzagaz eta neguan sortzen diran gorabeherak dirala eta. Bidegurutzean dagozan kartelak aldatzea proposatu dau. Aztertuko dala adierazo dau alkateak.

Eretxien tartea zabaltzeko garbe 4 tik 12ra jardinerak kentzeko proposamena jarri dau EAJ-PNVko ordezkariak. Zaborrontzia bide kontran, errepidetik kanpora geratzen dira. CAVA aurreko kotxeen aparkaleku modua konpontzea be aitatu dau. Segurtasunari buruz, gurako leukez kitamiedosak jartzea.

Garbe 4aren urbanizazioak hasiera data zein izango dan galdetu dau herritar batek, urteak daroazalako kontu bardina entzuten eta ez dalako konponbiderik lortzen.

EAJ-PNVko ordezkaria azalpenak emoten hasi jako herritar honeri egin diran gestinoei buruz eta alkateak be azaldu deutso.

Garbeko zakarrontziak dirala eta, zapatu eta domeketan ez dala zaborrik batzen aitatu dau beste herritar batek, baina herri osoko arazoa dala ikusi da orokorrean.

Errekatxoak eta sasiak haziz doazala salatu dabe bi herritarrek eta Garben Viviendas de Vizcayan lekuan kamioien aparkatzea ez dau ondo ikusten.

EAJ-PNVkoak asfaltoa ipinteko eta barritzeko plangintza egitea beharrezko ikusten dau.

CAVAko teilatuari buruz kezka azaldu dau herritar batek, osasunarentzako kaltegarria dalako.

Kaminoen bide baztarrak urtean birritan garbitzeko proposamena luzatu dau, gastuen igoera ekarri ahal dauela gogoratu arren alkateak eta gagozan une ekonomikoan ez dala sano bideragarria izango.

Akesolon kontrako sarreran dagoan arazoa planteau dau herritar batek. Metro batzuk jagoteko bideak zabaltzea eta estudio bat egitea egokitzat jo dau alkateak.

Ermitaren teilatua konpontzea adostu da, moduak zalantzak sortzen baditu be.